



ZEGAMA
UDALA

**ZEGAMA UDALAK HAUR, NERABE ETA
GAZTEEN AISIALDI HEZITZAILEAREN
EKINTZAK BURUTZEKO COVID-19AREN
PREBENTZIO ETA KONTROLERAKO
HARTUKO DITUEN NEURRIAK ETA
EZARRIKO DITUEN PROTOKOLOAK**

2020/2021 IKASTURTEA



ZEGAMA
UDALA

Zegama
Gazte



**ZEGAMA
UDALA**

**ZEGAMA UDALAK HAUR, NERABE ETA GAZTEEN AISIALDI HEZITZAILEAREN EKINTZAK
BURUTZEKO COVID-19AREN PREBENTZIO ETA KONTROLERAKO HARTUKO DITUEN
NEURRIAK ETA EZARRIKO DITUEN PROTOKOLOAK**

Dokumentu honetan jasotzen dena Eusko Jaurlaritzak 2020ko ekainaren 17an (*ondoren 2020ko uztailaren 28an aldaketa batzuk jaso ziren*) argitaratutako haur eta gazteen aisialdi hezitzailearen ekintzak burutzeko jarraibideen behin betiko dokumentuan oinarritzen da.

Aisialdiko jarduera guztiei aplika daitekeen araubide amankomunaren proposamena:

- Administrazio guztiek osasun-ministerioak unean-unean onartutako araudi erregulatzailerak bete beharko dute, baita ere erkidego autonomo bakoitzeko araudia.
- Haur eta nerabeentzako hezkuntza-aisialdiko jarduerak antolatzen dituzten erakundeek osasun-larrialdiko testuingurura egokitzeko plan bat aurkeztuko dute.
- Babes eta higie neurriak (2 metroko distantzia ahal den guztietan, maskaren erabilera derrigorrezkoa, eskuen garbiketa jarraia).
- Ekipamenduak higienizatuta mantentzeko oinarriak.
- Jarduerak aire zabalean eginez gero, ohiko gehieneko edukieraren %60ra murriztuko da parte hartzaileen kopurua, gehienez ere 200 lagun elkartzen direla, hezitzaileak barne.
- Jarduerak leku itxietan eginez gero, ohiko gehieneko edukieraren %60ra murriztuko da parte hartzaileen kopurua, gehienez ere 80 lagun elkartzen direla, hezitzaileak barne.
- Jarduerak gauzatzen direnean, parte hartzaileak gehienez ere 15 laguneko taldetan antolatuko dira.

Zegama, 2020ko urria